

1 – 3 DBH	4.DBH
<p>5. Lan-talde batean, ezaguera teknikoak eta zientifikoak egoki erabiltzea, diseinatutako ebazpena gauzatzeko.</p> <p>5.1. Ea egoki erabiltzen dituen jasotako ezaguerak laneko etapa guztietan.</p> <p>5.2. Ea erabiltzen dituen egiturak osatzen dituzten elementuak, eta elementu horiek jasan behar duten esfortzuekin lotzen dituen. Ea azaltzen duen esfortzu horren arabera jasan behar duten deformazioa ere.</p> <p>5.3. Ea behar bezala erabiltzen duen sistema mekanikoetan mugimenduaren transmisioak duen erlazioaren algoritmoa, eta sistema mekanikoetako abiadurak eta lekualdaketak kalkulatzeko dituen.</p> <p>5.4. Ea deskribatzen duen makina termikoren baten funtzionamendua.</p> <p>5.5. Ea behar bezala inplementatzen dituen zirkuitu elektrikoak eta elektronikoak eragile soilak erabiliz, proposatutako gaiari erantzuteko.</p> <p>5.6. Ea etxebizitzaren instalazioen diseinu errazak egiten dituen, sinbologia egokia erabiliz.</p> <p>10. Prozesuan zehar eta prozesuaren amaieran, garatutako lana ebaluatzea, hasierako diseinua kontuan hartuta egon diren desbideratzeak aurkitzeko eta beharrezko zuzenketak egiteko.</p> <p>10.1. Ea taldean egiten dituen jatorrizko diseinuan egin beharrezko zuzenketak, eta ikasketa-iturri izaten dituen hutsegiteak.</p> <p>10.2. Ea egiaztatzen duen hartutako ebazpenak ondo funtzionatzen duela.</p> <p>10.3. Ea azaltzen duen garatutako ekintzetatik ateratako informazio garrantzitsua.</p> <p>10.4. Ea identifikatzen dituen hurrengo proposamenetan ezar daitezkeen hobekuntza-alderdiak.</p> <p>10.5. Ea balioesten duen banaka edo taldean problema teknologikoa ebazteak sortzen duen poztasuna, eta aurre egiten dien prozesuan zehar sortutako zailtasunei.</p>	<p>5. Hartutako ebazpenean egin beharrezko transformazioak eskatzen dituen materialak, lan-tresnak, -eragileak eta –teknikak erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, baliabide horiek erabiltzeko arrazoiak ematea.</p> <p>5.1. Ea azken ukitu egokiz eginiko zirkuitu elektronikoak, hidraulikoak, mekanikoak eta pneumatikoak muntaia egiten duen, lagunduta behar izanez gero.</p> <p>5.2. Ea ebazten dituen problema teknologiko errazak ate logikoak erabiliz.</p> <p>5.3. Ea konbinatzen dituen aurretik finkatutako efektua lortzeko behar dituen eragileak.</p> <p>5.4. Ea behar bezala erabiltzen dituen beharrezkoak diren erremintak –ordenagailua barne-, eta segurtasun- eta higiene-irizpide egokiak erabiltzen dituen.</p> <p>5.5. Ea behar bezala erabiltzen dituen kasu bakoitzerako tresnarik egokienak, beharrezko neurriak zehaztasunez eta segurtasunez egiteko.</p> <p>9. Lan-etapa guztien informazioa biltzea, hizkuntza egokiak erabiliz, ezaugarriak jakinarazteko eta azterketa eta ebaluazioa egiteko.</p> <p>9.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen adierazpen grafikoko tresnak.</p> <p>9.2. Ea, laguntza duela, egiten duen osagai mekanikoak, elektrikoak, elektronikoak, hidraulikoak eta pneumatikoak esku hartzen duten marrazkirik eta eskemarik.</p> <p>9.3. Ea ordenagailua erabiltzen duen, informazio literala edo grafikoa tratatzeko.</p> <p>9.4. Ea hainbat formatuz baliatzen den lanaren berri emateko aurkezpenetan.</p>